

Tarnac herri txikian ostatu-denda bizirik atxikitzea da iraultza



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Landa lurraren jendez hustea, paisaian, lekuko bizimoduan eta klimaren aldaketan dakartzan eraginak, pertsoneri eta giza taldeei eragiten dizkieten kalteak... Azkenean agintariak ere hasi omen dira arazoaren larriaz ohartzen, Nafarroan herri abandonatuak biziberritzeaz Iruñean eta Lakaben egin den biltzarra lekuko. Baina hemorragia ez da eten, ezta Europa aberatsean ere, non sarritan utopiaren xerka hiritik iritsitako gazte *neorruralak* baitira bertako azken zaharren azken sostengua.

Hiru minutu eta erdi dirau interneten eskegitako “*La tournée du Magasin General de Tarnac*” (Tarnaceko Salto-ki Orokorraren bueltatxo) bideoak. Oraindik badira Frantzia antzina bezala etxez etxe salmenta egiten duten kamioiak. Tarnac herrikoak zelaia bezala errepidea zuri aurkituko ditu, dena elur eta izotz, herrigunetik aparte bizi diren biztanleei egingo dien bisitan: hitz egiteko gosez den gizon bakartua, ironia atxikitzen duen amatxi duina... Gazta, pastak, ogia, eguneroko otordu sotilak prantatzeko adina justu erosiko dute. Txofer gaztea borondatez ari da salmenta baino banaketa den lanean.

Tarnac (320 biztanle) izen bereko behien jatorria den Limousin eskualdean dago, euskaldunak ere barne hartzen dituen Akitania Handiaren goiko muturrean. Beste zientoka bezala hil-hurren zen herri honetaraino 2004an heldu ziren dozena bat gazte Bordele eta antzeko hirietatik –gazte ikasiak, politikoki antikapitalismoan edo anarkismoan lerrotuak– sistemaren bazterrean bestelako bizimodu bat antolatzeke irrikaz baserri eta etxeetan kokatzera.

Bazuten motiborik Tarnac hautatzeko: baso eta zelaiz aberats bezain jendez urri den Plateau des Millevaches (Mille-vaschas okzitanieraz) goi-lautadako herrietan badira lehendik ekonomia sozial eta solidarioan eta garapen alternatiboan oinarritutako proiektuak martxan. Millevaches izenak II. Mundu Gerrako erresistentzia eta makisak oroitarazten

ditu, baita lehenagokoak ere. Gentioux herriak badu 1914-1918 gerrak hildakoen monumentua, zeinetan 58 izenen azpian Frantziako edonon onartezina litzatekeen hau irakur daitekeen: “Madarikatua izan bedi gerra”.

“Norbaitek –diote *Magasin Generale*-ko arduradunek– esan baligu 2004an hiru urte geroago herriko denda txiki baten kargu egin behar genuela, seguru farre egingo geniola”.

2007an, ordea, gazteok beren gain hartu zuten komertzioa, dendaz gain dauzkana eguneroko inguruko baserrietaraino banaketan iristen den kamioia, herriko ostatu bakarra eguneroko otorduak ere eskaintzen dituen, liburutegi txiki bat, haurrentzako jolasgunea, bilerak egiteko gelatxo... “Abentura honetan sartu ginen herri txiki honetako azken leku publikoa desagertzen ez ikusteagatik, hau izan baitzen Millevachesera iritsi ginenean gure pausalekua, ongi etorri beroa egin ziguna. Hau ixtea herria hiltzea bezala izango zen guretzat”.

Hamaika urteren buruan, hogeita hamar pertsonak hartzen dute parte *Magasin General*-en eguneroko martxan. Otordutarako ostatua kantina kooperatibo bilakatu dute, eskaintza murrizteko denda zenaren apalak aberastu dituzte, elikagai ekologikoak eta hurbilekoak ugaritu, horiek sartu eskolako jangelan ere, zaharrentzako eta jende ezinduentzako zerbitzuak antolatu, eta abar.

Orain eraikina bera erosi nahi dute, horretarako *Ulule* plataforma bitartez

crowfundingean diru bilketa antolatuta. Abenduaren 12rako 52.000 euro behar-ko lituzkete, 24.000 lehen urratsean –24 egunen faltan 16.000 lortuta zeuzkaten– eta 2019an zehar 100.000.

Dena ez da izan esne-mami urteotan. 2008ko azaroaren 11n, San Martin, goizaldean 150 poliziak hartu zuten Tarnac bederatzi pertsona atxilotzeko, Paris eta Rouenekoekin denetara hogeia atxilotetara iritsiko zen sarekadan. Hamaika berehala askatuta, *Tarnaceko bederatziei* egotzi zieten terrorismoa erabiltzeko talde kriminala osatzea, haiei bizkarre-ratuz Frantziako trenbideetan hainbat linea elektriko saboteatu izana. Urri eta azaroan zehar TGV tren lasterren argindar hornidura etenda, ezezagunek lortu zuten 160 geldiaraztea. Hamar urte geroago, 2018ko apirilean, denak errugabe joko zituzten epaileek.

la basamortu zena loratu

David Dufresne kazetariak Frantziako antiterrorismoaren azken urteotako eskandalu handietakoa izan den *Tarnac aferaren* mamia azaldu zuen “*Tarnac Magasin General*” liburuan, hiru urteko ikerlanaren emaitza. Elkarrizketatu zituen operazioan zuzenean esku hartutako zerbitzu sekretuetako goi karguak, epaileak, militanteak eta bere familiak, Frantziako antiterrorismoaren erretratu beldurgarria eskainiz.

“Atxilotetak –laburbildu du Dufresnek–, Barne Ministeriotik zuzenean gidatuta, telebista kameran aurrean egin





Elkarteak Facebooken ipinitako Jack Alandaren argazkian, Tarnaceko ostatu-denda-bilgunearen ataria. Desertifikazioa zer den datuek erakusten dute: Tarnacek 2.000 biztanle zituen 1900. urtean, 1950ean 1.000, 1965ean 600 eta gaur egun 320. Horientzat, etorri berrientzat eta edonondik bizimodu bila hurbildutakoentzat gutxieneko zerbitzuak eta gizarte bizitza duina bermatu nahian ekin diote 'Magasin General'-aren egoitza erosteko kanpainari.

zituzten. Une erabakiorra zen Parisko agintarientzako, iritzi publikoari nabarmendu nahi baitzioten orduan DCRI zen eta gero DGSJ [Barne Segurtasunerako Zuzendaritza Orokorra] izango zen *FBI frantsesa* zein efikaza zen. Gobernuan goitik etorritako agindu bat zen eta *fiasco* izugarri baten hasiera”.

Tarnac aferan zuzenean inplikaturik egon zen Michelle Alliot Marie Barne ministro lapurtarra, Donibane Lohizuneko alkate izana eta gaur europarlamentari dirauena. Alliot Mariek atxilotuak konspirazio anarkista handi baten partaidetza aurkeztu zituen publikoki. Gero, auzia aurrera joan ahala eta zenbait hedabidek sakonago ikertu arau, Frantzia hankaz gora jarri nahi omen zuen taldearen istorio hura deusetan geratu zen. Hori bai, hamar atxilotuetako gehienek aste batzuk egin zituzten

presondegian, urte bete susmagarrietan ospetsuena zen Julien Coupatek, eta denentzat kalbario luzea epaitegietan.

Magasin General-eko taldea ez dago gaia ezkutatzeko eta *Ulule*-n diru bilketa argudiatzeko ipini duten idatzian garbi azaltzen dute gaia: “2008an polizia antiterroristaren operazioarekin hasitako aferak eta haren oihartzun mediatikoak [proiektuaren] irudia markatuko dute luzaroan. Baina agintariek kolektiboa desegiteko jo bazuten kolpea, horren lekuan harremanak sendotu ziren ez-beharrari aurre egiteko, oinarritzat hartuz denena den leku hau”.

Tarnaceko denda-ostatu-bilgunean ez da mugimendua eskas gaur egun, *Magasin General*-ek Facebooken erakusten dituen ekintzak eta agenda ikusi baizik ez da: afari eta ospakizunez landa, hitzaldiak, kontzertuak, antzerkiak, liburu

aurkezpenak, film emanaldi eztabaidaz osatuak... Oso present daude justizia sozial eta klimatikoaren aldeko borroka, bateko eta beste ZADak, Frantziako Estatuak gogor hartzen dituen etorkin berriekiko elkartasuna, azpiegitura erraldoien kontrakoak, antinuklearrak edo oihaen txikizioa gelditu nahi dutenak.

Tarnacez gain Millevaches eskualde osoan nabari da mugimendua, 68 osteko baserritar berriei oinordekotza hartu baliote bezala XXI. mendekoek. Kultur elkarteak, ostatu eta denda txikiak, *Tele Millevaches* herri telebista... eta debate politiko eta sozial beroak. Gentioux en, Tarnacetik harrikada bide, antzeko ostatu-denda-bilgunea zaharberritu eta *La Renouée* deitu dute, Berriz Hasia. “*Herriak bizi behar du*” ikasi genuen guk ere gaztetan Ipar Euskal Herrian. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

